



## **OROZKOKO UDALA**

### **JARDUERAGATIKO ETA ESTABLEZIMENDUAK INSTALATU ETA ZABALTZEAGATIKO ZERBITZUAK EMOTEAGATIKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA**

*(2015/12/11ko 238 zb. B.A.O.ean argitaratua eta 2019/12/17ko 240 zb. B.A.O.ean aldatua)*

#### **I. OINARRIA ETA IZAERA**

##### **1. artikulua**

Konstituzinoaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoaz bat etorritik, Udal honek sailkatutako jardueren lizentziak emoteagatiko eta, sailkatutako jardueren aurretiazko komunikazioko jarduerengatikot tasak ezartzen ditu, zerga ordenantzan arauak arestian aipatutako oharmandakoari erantzun deusie.

#### **II. ZERGA EGITATEA**

##### **2. artikulua**

2.1. Tasaren zerga egitate izango da:

- a) Sailkatutako jardueren eta erabilerak legeztatze lizentziak emoteko, jardura horiek ezartzeko, horiek handitzeko edo eraberritzeko zein neurri zuzentzaileak beteten diren barrikustea eskatzen daben establezimenduen erabarritze edo haditzeeterako udal jardura tekniko zein administratiboa. Ondore horietarako, lizentzia behar daben jarduerentzat joko dira Ingurumena Babesteko zezeilaren 27ko EAeko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinen B) atalean jasotzen direnak.
- b) Sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa eskatzen daben jardura eta instalazioak ezarri, handitu edo erabarritzeari lotuta garatzen diren kontrolerako eta egiaztatenerako udal jardura tekniko zein administratiboa. Aurretiazko komunikazioa behar daben jarduerentzat joko dira Ingurumena Babesteko zezeileko 27ko EAeko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinen B) atalean jasotzen direnak.
- c) Aurretiazko komunikazioa eskatzen daben establezimenduak irekitzearekin eta jarduerak abiaraztearekin lotuta garatutako kontrolerako eta egiaztatenerako ondorengo udal jardura tekniko zein administratiboa, aipatutako 3/1998 Legearen II. Eranskinen A) atalean jasotako sailkatutako jardueraren lizentzia daukienak.

2.2. Udalaren jardura hori subjeto pasiboak lizentzia eskatzearen edo aurretiazko komunikazioa aurkeztearen ondorioz sor daiteke, edo ikuskapen-jarduketaren ondorioz, lizentzia barik, aurretiaz komunikatu barik edo jagoken lizentziak edo aurretiazko komunikazioak guztiz babesten ez dituen jarduerak existitzen direla egiaztatzen bada.



## **OROZKOKO UDALA**

### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **3. artikulua**

Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aipatzen dituen eta udal zerbitzu edo jarduerak eskatu edo horien onuradun edo eraginpeko diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak dira zergadun subjektu pasiboak.

Administrazioaren jarduera edo zerbitzua subjektu pasiboari jagokola eta hari eragiten deusola ulertuko da, berak zuzenean edo zeharka eragin dauenean, bere ekintzek edo omisioek jarduera ofizios egitera edo, segurtasun, osasun eta hirigintzako ordena arrazioengatik, zerbitzuak emotera edo bere eskumeneko beste edozein burutzera behartzen dabenean Udalak.

### **IV. ERANTZULEAK**

#### **4. artikulua**

4.1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 41. artikulua aipatzen dabean pertsona fisiko eta juridikoek subjektu pasiboaren zerba betebeharreari solidario gisa erantzun beharko deusie.

4.2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

### **V. ZERGA OINARRIA.**

#### **5. artikulua**

5.1. Zerga kuotak ondoren agertzen diren kopuru finkoetan ezarrita geratuko dira:

- Bankuak, dantzatokiak, hotelak: 591,46 euro.
- Jantokiak, kafetegiak, tabernak: 184,83 euro.
- Merkataldendak: 110,89 euro.
- Lantegiak:
  - \* 0-5 langilekoak: 184,83 euro.
  - \* 6-25 langilekoak: 369,65 euro.
  - \* 26-50 langilekoak: 739,32 euro.
  - \* 51 langile edo gehiagokoak: 1.478,67 euro.
- Beste edozein jarduera: 110,89 euro.

5.2. Udal zerbitzua erantzunkizunpeko aitorten edo aurretiazko komunikazioaren bidez sortzen danean, aurreko atalean batzen diren zerga kuotei 0,9ko zuzenketa-koefizientea aplikatuko jake.

5.3. Behin lizentzia emon edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondoren, establezimenduan jardueraren jardunaren baldintzak barrez aztertu eta neurri zuzentzaileak berrikusi beharra eskatzen daben erabarritze edo handitze lanak egiten badira (betiere, jarduera aldaketarik ez badago; kasu horretan, aurreko ataletako jagokon tarifa aplikatuko jake).

Beste establezimendu baten zabaltze bat izango balitz jagokon tasaren %20 ordainduko leuke.



## **OROZKOKO UDALA**

### **VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK. IRAUNGITZEA**

#### **6. artikulua**

Ondorengo hauek tasatik salbuetsita geratuko dira:

A) Derrigorrezko errauspenaren, sutearen, aurri-adierazpenaren edo bestelako ezinbesteko kausaren baten zioz, edo Administrazioak ezarritako baten zehapenaren edo haren agindu edo lege-xedapenak ez betetzearen zioz, establezimenduak lekualdatzearen ondoriozko establezimenduak zabaltzea.

Salbuespenak lehenengo lokala hartuko dau, behin konpondu edo barritu ondoren, edo lokal barrian lehenengo jarduera bera egiten bada eta ez bada handitzen.

B) Estaduko Lege eta Xedapenetan aurreikusitakoak.

#### **7. artikulua**

7.1. Tasa-kuotan %25eko hobaria izango dabe:

A) Jatorrizko lokaletan obrak dagozalako establezimenduen lekualdaketak gertatzen direnean, betiere jagokon zabalera eta Obra Lizentzia badaukie.

B) Lokalak handitzen direnean, handitutako zatia jatorrizko lokalarekin komunikatuta baldin badago. Baita jarduerari jagokezanak ere.

C) Establezimenduen edo lokalen lekualdaketak, hirigintza araudiari jarraiki ezarrita egotea ez jagokie gunetik egokitzen jotzen diren gunetara lekuz aldatzen direnean, betiere jarduera berarekin jarraitzen baldin bada.

7.2. %50eko hobaria ezartzen da familia ugariak diren subjektuentzat, lehenengoz jarduera bat hasten daben 30 urteko baino gutxiagoko gazteentzat, langabezia dagozan emakumeentzat eta denbora luzean langabezia dagozan pertsonentzat.

#### **8. artikulua**

Lizentzia emon danetik hiru hilabetera zabaldu barik dagozan lizentziak iraungitatzat joko dira.

Era berean, iraungitatzat joko dira zabaldu ostean jarduera bertan behera itxiko balitz, edo 6 hilabetez edo gehiagoz industria-zergaren gaineko Lizentzia Fiskalean baja emongo balitz.

### **VII. SORTZAPENA**

#### **9. artikulua**

9.1. Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra zerga egitatea eratzen dauan udal jarduera hasten danean jaioko da. Horiok horrela, jarduera-lizentzia edo aurretiazko komunikazioarena, eskabide egokia aurkezten dan datan hasiko da aipatutako jarduera subjektu pasiboak espresuki formulatuko baleu.

9.2. Jarduera bat beharrezko lizentzia lortu barik edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu barik martxan jarri danean edo abiarazitako jarduera ez danean baimendu edo komunikatu dana, tasaren sortzapena egingo da jarduerak baldintza galdagarriak betetzen dituen zehazteko udal jarduna hasten danean; hala eta guztiz be, administrazio espediente hastera



## **OROZKOKO UDALA**

litekeena izango da establezimendua zabaltzeko baimena edo itxiera dekretatzeko zabaltzea ezinezkoa dan kasuetan.

### **VIII. KUDEAKETA**

#### **10. artikulua**

Beharrezko lizentzia emoten danean, edo erantzunkizunpeko aitopena edo aurretiazko komunikazinoa aurkezten danean, tasari jagokon behin betiko likidazinoa egingo da, subjektu pasiboari jakinaraziko dana Udal Diru-Kutxan zuzenean diru-sarrera egiteko Zerga-bilketari buruzko Foru Araudi Orokorrean aipatzen diren ordainketa bideak eta epeak erabilia.

#### **11. artikulua**

Udalak tasa hau auto-likidazino erregimenean eskatu ahal izango dau.

### **IX. URRATZEAK ETA ZEHAPENAK**

#### **12. artikulua**

Zerga-urratzei jagokenez eta kasuan kasuko zehapenei jagokenez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 183 eta ondorengo artikuluetan xedatutakoari jarrituko jako.

### **X. AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa:** Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan hurrengo egunetik zenbatuta sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko dau aldatzea edo indargabetzea erabagi arte.

**Bigarrena:** Ordenantza honen onarpenak aurretik egoan «Establezimenduak zabaltzeagatiko lizentziari buruzko Ordenantza Arautzailea» ordezkutzen dau.

Orozkon, 2015eko abenduaren 3an.

-Alkatea